

Herri Aldizkaria

Otamotz

□ **Edurne ITURBE** soinu-jole urretxuarrak Aitziber Estanga panderojole donostiarrarekin batera, San Jose egunez Azpeitian ospatu zen Euskadi Irratiko Pieza Berrien Lehiaketako finalean parte hartu zuen. Lehiaketa hau, fandango, trikitixa eta poupurriarena zen. Martxoaren 4an Donostiako Victoria Eugenia egin zen kanporaketan aurkeztu ziren 28 piezen artean, trikitixan 6 pieza eta fandangoan beste 6 pasa ziren finalera.

E d u r n e Iturbek eta Aitziber Estangak a l o r bakoitzeko p i e z a banarekin lortu zuten finalean i z a t e a . Poupurriaren atala, libre gelditu zen aurkeztutako trikitilariak doinu hauek behar bezala prestatu gabe zituztelako.



□ Urola Garaiko Mankomunitateak **JAZKILAN** programaren barne ehungintza industrialeko hirugarren ikastaroa antolatu du. Ikastaro honen helburua, 14 lagunek lan egingo luketen kooperatiba sortzea da. Lehenago egin diren modu honetako ikastaroek emaitza onak izan dituzte, lehenengo ikastaroan parte hartutako 16 lagunek, **JAZKI LAU** izeneko kooperatiba sortu eta lanean baitihardute. Sektore honetan dagoen lan eskaera ugaria aurrikusirik, bigarren ikastaroko 14 lagunek ikastaroa bukatu orduko kooperatiba berri bat sortzea ere litekeena da.

□ **PSE-EEK Antton Arbulu** zumarragarra aukeratu du Oria ingurunerako Gipuzkoako Batzar Nagusietarako lehen hautagaia. Oria inguruneak Andoaindik Legazpira bitarteko herri guztiak hartzen ditu eta Antton Arbuluz gain, Urretxu eta

Zumarragako hautagai gehiago ere aukeratu ditu PSE-EEK. Hirugarren postuan Francisco Urrestilla urretxuarra eta seigarren postuan Juana Fernández zumarragarra ere, hautagaien artean daude.

□ 86 lagun bildu dira **ZINTZO-MINTZO**ko Kultura taldeak antolatu eta **Miren AZKARATE** euskaltzainak eman duen **Akatsak ... Zuzenduz** ikastaroan. Ikastaro hau martxoaren 2, 9, 16, eta 22an izan da eta hitz egiterakoan egin ohi ditugun akats eta hankasartzeak argitu eta zuzentzeko asmoz antolatu da. Izan duen arrakasta ikusirik, datozen urteetan antzeko ikastaroak antolatzekeko posibilitatea aztertzen ari dira Kultura taldekoak.

□ **SUTEA**: Martxoaren lehen egunean sutea izan zen Urretxuko Iparragirre kaleko 21. zenbakiko etxebizitza batetan. Sutea gertatu zen unean J.L.T. 24 urteko gaztea etxean bazegoen ere, bizkarrean larridura gutxiko erredurak baino ez zituen izan. Etxebizitza kalteturik gertatu zen eta suhiltzaileek itzali behar izan zuten sua.



QUEMALTEHON

Zintzo Mintzo
MINTZO



Mota guztietako arrain fresku eta izoztua

Labeaga 2, etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 45 54



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 25 99

INSALUS

ANDUEZA
banaketa zerbitzua

Mugitegi, 85
20700 URRETXU

© 72 51 82

SUHILTZAILEAK, ETENGABE ARRISKUAREKIN HARREMANETAN

Mirestekoa da suhiltzaileek betetzen duten funtzioa. Tamalez, beraien lana istripu edo suteran bat suertatzen denean baino ez da baloratzen. Elkarrizketa honen bidez, beraien barne antolakuntzaz zerbait gehiago jakitea izan da gure helburua, beraiengana hurbiltzea alegia.

OTAMOTZ: Noiz sortu zineten talde bezala?

PABLO NUÑEZ: Hiru urte daramatzagu Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpe, dena den, lehendik ere suhiltzaile lanetan aritu gara baina udaletxeen ardurapean.

O: Beste herriekin harremanik ba al duzue?

P: Bai, herrien arteko harremana gertatzen da. Istripu edo sute handiren bat suertatzen bada Gipuzkoako Aldundiak herriei abisua emateaz arduratzen da. Esan genezake kasu hauetan zentral gisa funtzionatzen duela.

O: Zenbat pertsonak osatzen dute taldea?

P: Hiru udaletxetako jendea dago taldean, Urretxun bereziki hiru bertakoak gara eta bakar bat kanpokoak.

Gutako zazpi edozein momentutan aurki gaitzaten "buska" bat eraman behar dugu. Egun, taldea 24 lagunez osatzen da, buruzagia eta gidariak barne.

O: Emakumerik ba al dago?

P: Momentuz ez, ez dago emakumezkorik. Badago aukera kargu honetara aurkezteko eta esan behar da burututako frogetara bakarren bat aurkeztu zela.

O: Prestakuntza berezirik hartu al duzue suhiltzaile izateko?

P: Etengabeko ikastaro batzuk egin genituen, hauetan frogak fisiko,



Suhiltzaileen simulazioa Zumarragako plazan

psikologiko eta erresistentzi frogak egin genituen, azken hauek gogorrenak eta gehien baloratzen direnak dira.

O: Zeintzuk izaten dira ekintza arruntenak?

P: Lehen bereziki mendian ibiltzen ginen baina orain basozainen esku dago ardura hau.

Orain, ekintzak batik-bat herri mailan suertatzen dira, etxe bizitzetako suteak edo kotxe istripuak direla. Era berean, erreskate lanak ere gauzatzen ditugu.

O: Diru laguntzarik jasotzen al duzue?

P: Lehen esan dudan moduan, Gipuzkoako Aldundiaren menpe gaude eta honek diru laguntzaz aparte, plusak eta gainorduak ordaintzen dizkigu.

O: Zein motatako materiala erabiltzen duzue?

P: Suhiltzaileen egoitza Legazpin dago. Bertan, bi kamioi (5000 eta

3500 litroekin - sute handi baten kasuan lehenengoak bigarrena hornituko du -), ur-hodiak, eta eskartzelazio eta arnas ekipak aurki ditzakegu.

O: Bitxikeriaren bat...

P: Ufff, asko! Nire sustorik handiena, hemendik gertu baserri batean sua itzaltzen ari ginelarik kiskalita zegoen emakume bat gainera erori zitzaigunean izan zen.

Bestalde, badaude beste kasu batzuk, nola esango nuke: "dibertigarriagoak", istripu baten ondoren kotxe batetik pertsona bat odoleztaturik atera eta farrezka hasi zen eskerrak emanez.

Suhiltzaile lana fisikoki oso gogorra da eta lanbide hau gustukoa baduzu, psikologikoki ohitzen zoaz poliki-poliki.

Espero dugu zuen laguntza gehiegi behar ez izatea, gauzak ongi doazela suposatuko bailuke.

ELIZ - KALE

AUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

POLITENA

TABERNA

Kalebarren 20700 ZUMARRAGA

ZAPATAK

dirdai



Otik 40 zenbakiraino

Eliz Kale, 7
20700 ZUMARRAGA © 72 54 39

ZEZENAK GURE ARTEAN



Zezenak eta zezen-festak askok, kanpotik etorritako ikuskizunak direla pentsatzen duen arren, jatorriz oso gureak omen dira.

Kontuak kontu, eta argazki hauetan ondo ikus daitekeen bezala, badakigu gure herriotan zaletasun handia izan dugula eta horren lekukoak izan daitezke Santa Anastasietan ospatzen ziren zezenketak edota eraiki zen plaza mugikorra bera ere.

Adibide gisa, esan dezakegu, 1922an ere zekorketak antolatu zirela horretarako berrehun eta berrogeita hamar pezetako aurrekontua onartu zelarik. Honez gain, zezen suzkoa ere izan omen zen urte batzuetan.

Zezen plazetan hain beharrezkoa den hondarra, berriz, Urola trenean ekartzen zen.

Iparragirre plazan muntatu ohi

zen zezen-plaza mugikor hau makina bat lekutara eramana izana zaletasun horren adierazletzat har daiteke. Udalerrri askok alokatzen zuten plaza hau (Ermua, Santo Domingo, Bergara, Arrasate, Pasaia, Agurain, Beasain, Galdakao ...). Aipagarriena Santurtziko udalarekin sortutako liskarrak izan daitezke. Guda Zibila sortu zenean zezen-plaza mugikorra Santurtzin zegoen, gudak iraun bitartean han egon zen baina trintxera moduan erabili zen. Guda bukatu bezain pronto, 1939ko apirilaren 4an, plaza hona ekartzeko gestioak hasi ziren, baina gestio hauek asko luzatu ziren, plaza benetan hondatuta baitzegoen.



MAZMELA

erloju, bitxi eta
zilardenda

Gernika plaza, 1 ☎ 72 18 57

20700 URRETXU

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Berogailuak eta gasa
Sukalde eta komonak

Deskargarako bidea, z/g. ☎ eta Faxe: 72 54 59



JAKIN

Bulegoko eta merkataritzako
makinen salmenta eta
konponketa

Labeaga, 12 ☎ 72 36 08 20700 URRETXU

IMPORTAZIO BERRIAK

CAPADOCIA

ALFONBRAK - KILIM - CICIM - SUMAK

Zuzeneko inportatzailea

Konponketak egiten dira

Labeaga 12, etxeazpia 20700 URRETXU

☎ 72 24 09

JAKA

KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta, 18
20700 URRETXU

☎ 72 14 13

ETXE - AZPI

Igandeetan itxita!

Mugitegi, 27
20700 URRETXU

☎ 72 51 65

Aisialdiari dagokionez, zer dago soberan eta zer faltan?



Eguzkiñe Diaz de Espada

Zinea falta izatea lotsagarria da. Zine aretoa behar genuke eta ahal izanez gero Astoriak dituen bezalako eserlekuekin.



Maritxu Mendizabal

Ni gustura nago. Nahikoa lan dut bestela ere nire bizitzan gai honetaz arduratzen hasteko. Dena den, gazteok ez zaudete inoiz pozik.



Jose Manuel Bereziartua
"Bere"

Falta dena da bizikletaz ibiltzeko pista itxurazkoa. Eta soberan dagoena, nire ustez, tabernak dira, taska gehiegi dago.



Bixenta Aranburu

Behar den lehenengo gauza zinea da eta, bide batez, antzoki txukun bat. Orokorrean gazteentzako alternatiba gehiago behar da. Edadetuak ibiltzeko toki politak daude eta tabernak soberan.



Juan Balerdi

Berrikuntza asko egin da baina badira zenbait gabezia, esate baterako, hemen gauden plazan, Areizaga plazan, lehen zeuden iturria eta arbolak falta dira. Paseatzeko eta, Bidegorria oso ondo dago baina barandila falta zaio.



Ainhoa Urretabizkaia

Parke gehiago behar da, orain daudenak gutxitxo dira. Kultur emanaldiak ere ez dira asko. Gaztetxoek arteko harremanak sendotzeko ekintzak ere faltan ikusten ditut.



29 urteko zumarragarra, Israelgo Tel-Aviveko enpresa batean programatzaile moduan ari da lanean duela urte t'erditik hona, Multimedia eta Bideo Digitalaren munduan, beraz punta-puntako teknologian. Hara joan aurretik, Arrasateko Eskola Politeknikoan, Toulousen eta Holandan burutu zituen ikasketak.

Denbora gehiena lanak eramaten diola esan arren, gustukoa duen arloan diharduela aitortzen du. Batez ere Israelen dagoen arraza mistiziaia azpimarratzen du, judutar herria mundu osotik bertara etorritako jendeak osatu baitu.

Israel geografikoki edo historikoki parerik ez duen herrialde bat dela esan digu. Politika arloan, bake prozesuak esperantza ekarri duela dio, baina gutxienez ehun urte pasatu beharko direla uste du palestinarrek eta judutarrek hezurretan duten gorrotoa desagertzeko.

Han bero handia egiten duela esan ondoren, senideak, lagunak, janariak eta festak min dituela dio, baina etxeko lagunak eta gurasoak bere ondoan nahi izango lituzkeenak direla adierazi digu, denak elkarrekin hango gauzez gozatzeko.

JON GABILONDO

Muntaiak eta Instalazioak Elektrikoak

HERCE
Electrónica, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4 ☎ 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
20700 URRETUXU

URRE TXU
KARROZE RIAK, S.L.

Automobilien pintaketa
eta txapa konponketa

Azkoitiarako bidea, z/g ☎ 72 34 78
20700 URRETUXU

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEGIALDE AUTO

- KONPONKETAK OROKORREAN.
- IBILGAILUEN SALMENTA.
- GARBIKETA-ZUBIA.

ZERBITZU OFIZIALA
PEUGEOT

Mugitegi, 17 Pol. ☎ 72 51 37 - URRETUXU - Sª Kutz, 17 ☎ 73 41 49 - LEGAZPI

KORRIKAREN 9. EDIZIOAK BIRRITAN ZEHARKATU ZUEN URRETXU ETA ZUMARRAGA, "JALGI HADI EUSKARAZ" LEMAPEAN

Martxoaren 17an Donibane Garazin hasi eta 26an Gasteizen amaiera izan zuen KORRIKA 9, Urretxu eta Zumarragatik birritan igaro zen ostegunean hilaren 23an.

Eguraldia lagun, lasterketa osatzen zuten bost kilometrotan zehar goizez batez ere ikastetxeetako haurrak izan ziren protagonistak, arratsalde berri, helduak. KORRIKAREN inguruan, KORRIKA BATZORDEAK ekintza ugari antolatu zituen, hauek eta beste jakingarri batzuk doazkizue hurrengo lerroetan.



Martxoaren 23an bisitatu gintuen KORRIKAK

Argazkia: Aranburu

KORRIKA 9 edizioari martxoaren 17an Donibane Garazin eman zitzaion hasiera eta 26an Gasteizen amaitu zen, 2.150 kilometro egin eta gero, hamar egunetan 300 herri inguru zeharkatuz.

Urretxun, ikastolako haur batek hartu zuen lekukoa Isabelen, goizeko 9.30etan, une batzuk beranduago gaztelekura iritsiz. Bertan, Urretxuko Gainzuriko ikastetxeko haurrak Zumarragako kaleetan sartu ziren goizeko hamarrak inguru.

Elizkalen San Jose ikastetxeak hartu zuen errelebua Eitza mendatean udaletxeko langileak zain zituztelarik.

Arratsaldean, berriro sartu zen korrika bi herrietan. Honakoan, lizeoko ikasleak, Bisasti AEK euskaltegiak, Zumarragako udala, Iparragirre institutua, Amalur elkarteak eta tabernariak, besteak beste, izan ziren lekuko eramaleak.

Jendetza ugari bildu zen eta oso giro polita bizi izan zen bost kilometrotako ibilbidean.

AEK-ko kideek, **KORRIKA 9** euskararen aldeko lasterketa hutsean gera ez zedin, herrietan sortutako korrika batzordeei esker "Korrika kulturala"

antolatu zuten.

Egitarau honen barruan, Urretxu eta Zumarragan txistulari eta trikitixak lagunduta, igandean, martxoaren 12an kuestazioa burutu zen.

Martxoak 13 ostiralean, Peio Zabaleta euskaldun idazleak hitzaldi bat eskaini zuen Zumarragako Itarte etxean, plazaratu berri duen poesia liburuaz hitz egiteko asmoz.

Martxoaren 23rako bertso eta trikitixaz girotutako herri afari bat antolatu zuten Galeperra elkarteak. Igandean, Gasteizera joateko autobusak ere antolatu zituzten.

"**Jalgi hadi euskaraz**", aurtan antolatzaileek aukeratu duten leloak badu bere arrazoia, orain dela 450 urte Beñat Etxepare idazle garazitarrek euskaraz idatzitako lehen liburuan "Olerkiak" izenekoan, "Euskara jalgi hadi plazara, jalgi hadi mundura" idatzi baitzuen. Ekintza horri omenaldi bat egitea da leloaren arrazoia.

Omenaldi honez gain, AEK-k Mikel Laboa omendu zuen kultur gintza eta euskalgintzari eginiko

ekarpenagatik. Bera omenduz bere belaunaldiko kantariak egindako lana eta euskararen berpiztean kantagintzak bete zuen zeregina azpimarratu nahi izan du AEK-k. Horretarako Mikel Laboari buruzko liburu bat argitaratu du KORRIKAK.

Bi urtez behin antolatzen den lasterketan lortzen den dirutzatik, sarrera garrantzitsuena kilometroen salmenta izaten da. Enpresa eta elkarteek erosle bezala lekukoa eramaten dute ibilbide horretan zehar. Lekuko horrek euskal kulturaren pertsonaia historiko batek idatzitako mezu bat darama barruan, Gasteizen azken kilometroa igaro eta gero, irakurri dena.

Material salmenta, kuestazioa eta **KORRIKA LAGUNARI** esker diru nahikotxo lortzen da.

Aurtengo edizioan antolatzaileek euskaldunei arlo guztietan euskara bizi eta erabil dezatela eskatzen diete eta erdaldunei, berriz, ezagutu eta erabil dezatela. **Beraz, badakigu!**



ILLARGI, E.A. okindegia

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU

BIONA

AROSZTEGIA

© eta Faxe: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU

La Primitiva

1

12

16

26

46

47

Osagarria 49

Zenbaki hauei esker, **Jose Migel Loiar**te zumarragarrik 143 milioi pezeta lortu zituen martxoaren 9an egindako loto zozketan. **Zorionak eta bejondeiola!!**

NONDIK DATOR!

AGIRRE

Euskal Herrian barrena oso zabaldua dagoen abizena da. Toki edo gune altua esanahi du, eta garai batetan goietan kokatutako etxe asko izendatu ziren Agirre izenez. Ikertzaileek ez dute argi non sortutako izena den. Bai Zumarragan eta baita Urretxun ere, baziren izen honetako etxeak eta inguruko herrietan, Gabirian eta Itsason ere baziren. Legazpin hiru etxek hartu zuten izen hau.

ASTE SANTUA

Aste santua!. Fededunontzat egiaz eta benetan santua!. Bertan gogoratzen ditugu gure erlijioa misteriorik ederrenak, handienak eta maitagarrienak, gure sinesmenaren sustrai diren misterio sakonak: Eukaristia, Kristoren Nekaldi-heriotza eta Berbiztea.



Erramu igandearekin hasiera ematen diogu Aste Santuari. Erramu eguneko elizbira ez da Jesusek Jerusalemene eginiko sarreraren folklore-antzerkia. Bakearen eta itxaropenaren erramuak eskuetan ditugularik, Jesusi jarraitzen diogu Bera gure Salbatzaile eta Errege dela aitortuz.

Ostegun Santu: "Agindu berri bat ematen dizuet: Maita ezazue elkar, Nik maite zaituztedan bezala". Elkar maitasun agindua betetzeko Maitasuna jatea beharrezkoa dugu. Maitasuna ogi egin da eta Bere mahaira gonbidatzen gaitu. Ez da santu, aberats eta indartsuen janaria, baizik behartsu, gaixo eta pekatariena. Eukaristia, Apaizgoa eta Elkar-maitasuna: Eliz Amak ostegun santuan gogoratzen dizkigun hiru gauza eder!

Ostiral Santu: "Ez da maitasun handiagorik nork bere burua besteen alde eskaintzea baino" esan zuenak Berak, egun honetan, Golgotan bere bizia Aitari eskaini zion guk bizia izan dezagun. Gurutzea ez da igaro. Kristok orain ere supritzen du: behartsuk, baztertutak, bakartiak, maitasunik gabeak dira gaur eguneko Jesus gurutze iltzatuak... Maitasuna gurutze bihurtu da...

Larunbat Santu: Sua, argia eta ura hiru lehengai dira bizi ahal izateko. "Gau zoriontsu, eguna bezain argia, alaitasunez apaindua". Kristo, munduko Argia, biztu da!. Kristo bizi da! Alleluia!. Berri on hau aldarrika dezagun mundu guziaren aurrean.

BAZKOA: Egiaz Kristo berbiztu da. Hau da gure fedea. Gu ere heriotzatik bizira igaro gara, bekaturik graziara aldatu. "Kanta dezagun denok hau da egun alaia. Kristo biztu da eta kanta ALLELUIA".

BAZKO JAI ZORIONTSUA!

Rafael Aizpurua Egaña



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • ☎ 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elkadura

Labeaga, 31
20700 URRETXU ☎ 72 27 80



URRETXU

OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Iparragirre, 1 ☎ 72 59 68 20700- URRETXU

KALITATEA • TEKNIKA • ZERBITZUA • MODA



Gernikako Arbola plaza 5, behe A
20700 URRETXU

☎ 72 59 71

URRETXUKO RUGBY TALDEA: "Hemendik pare bat urtera ekipoa finkatzea nahi genuke"

Zumarraga-Urretxun betidanik egon da kiroletarako grina. Orain, lagun talde baten ekimenari esker, ohizko ez den kirol bat ere dastatzeko aukera dugu. Beste kirol mota batzuek duten partehartzaile kopurua lortzea zaila izango duten arren, jadanik lehen urtea betetzen ari dira eta erakusten ari diren borondatearekin, ekipoa finkatzea lortuko dute

◆ Nola hasi zineten?

Idea Jose Luis Andikoetxearena izan zen. Lehenago Gernika Rugby taldean jokatzeko zuten. Hemen lan egitea egokitu zitzaion eta, hau aprobetxatuz, Rugby talde bat eratzea pentsatu zuten. Kartelak jarri zituen herrian eta apuntatzea erabaki genuen. Hemendik talde bat sortu zen, entrenatzen hasi eta pixkanaka adiskidantzako partidua jokatzeari ekin genion.

◆ Zenbat jende dago taldean?

Bi talde gaude, jubenilak eta nagusiak. Jubeniletan 20 kide gara eta nagusiok 25 pertsonako taldea osatzen dugu.

◆ Astean zenbat bider entrenatzen duzue?

Orain astean behin bakarrik entrenatzen dugu, Zumarragako futbol zelaiko anexoan. Taldeko batzuk astean zehar herritik kanpo daude eta ostiraletan bi ordutako saioa egiten dugu.



◆ Zer nolako emaitzak lortu dituzue orain arte?

Orain arte ez dugu partidurik irabazi, baina lehenengo urtea da eta hau asko nabari da rugbyari. Nahiz eta partidurik ez irabazi, zelaian gero eta hobeto moldatzen ari gara, jadanik entsaio batzuk egitea ere lortu dugu.

Rugbya suspertzeko herri mailako txapelketa bat antolatzeaz gaude

◆ Zeintzuk dira zuen helburuak?

Helburu bakarra ekipoa egitea da, ez da gure asmoa mailaz igotzea. Hemendik pare bat urtetara ekipoa finkatzea nahi genuke.

◆ Zer laguntza jasotzen duzue taldea aurrera ateratzeko?

Laguntza apur bat badugu, alde batetik publizitate estatikoa daukagu.

Bestalde, Urretxuko udaletxeak Elizalde futbol zelaia egokitu zigun, baina bertan aldagelak ez egoteak arazoak sortzen dizkigu.

◆ Bukatzeko, rugby neurketek hirugarren zati bat dutenaren berri ere jakin dugu. Zertan datza?

Partiduek bi zati dituzte, bi zati hauetan makina bat tirabira izan ostean, bi taldeak elkartu eta zerbait jan eta edaten dugu.

Bi taldeen artean adiskidantza giro hau sortu ahal izanak argi erakusten du rugbya ez dela dioten bezain gogorra, beraz badakizue, hemendik dei bat egiten dizuegu jolastu nahi duzuen guztiei. Hain zuzen jendea erakartzeko herri mailako txapelketa bat antolatzeaz gaude, 6-7 taldetako ligatxo bat antolatuko dugu, zazpi jokalariz osatutako taldeak.



ZURICH

Aseguruak

Agustin Elias Larrea
Erregistro zenbakia: 2072563049 G

© 72 37 76 Faxa: 72 53 46
Labeaga 33-G etxeazpia 20700 URRETXU



**Baskotour
bidaiak**

Berandu gabe, gorde ezazu
Aste Santurako Bidaia!

S. Esnaola 28
20700 ZUMARRAGA © 72 24 09

ALBAITARITZA KLINIKA



Ana Alustiza Zabaleta

Filipinas Uharteak, 5
20700 ZUMARRAGA © 72 49 26



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA © 72 04 23



ARGIKI

PARRA anaiak C.B.

S. Esnaola 6, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA © 72 41 64



**TXINATAR
JATETXEA**

Eguneko menua: 750 pta.

Menu bereziak

109 plater ezberdin

Labeaga 33 (Madaya)
URRETXU © 72 52 43

MENDI IRTEERAK

Apirilak 8: Ostadar eta Goierri Mendi Taldeek, Altube eta Barazar mendateen arteko uren banalerrora antolatutako mendi irteera.

Apirilak 16: Ostadar Mendi Taldeak Valderojoko parke naturalera, Lalastra herriko Recuenco (1240 m.) mendira.

Apirilak 30 Maiatzak 1: Goierri Mendi Taldeak Zuberora antolatutako irteera, Larrañetik Eskaleak edo Ori mendietara.

HERRI KIROLAK

Apirilak 17: Javier Aranbarrik, kanako enborra ebaki eta jarraian, Izazpira joan etorria egingo du. Honekin datozen urteetarako gainditzea zaila izango den erregistroa ezarri nahi du.

ANTZERKIA

Dagoeneko hiru urte bete dituen Urretxu eta Zumarragako UDAL ANTZERKI TAILERRAK apirilaren 7 eta 8an sei hilabetetako ahaleginen emaitza diren bi antzezlan plazaratuko ditu PAGOETA udal antzokian:

Apirilak 7: Salamancako Alfonso Zurro autorearen "BUFONERIAS", gazteleraz.

Apirilak 8: "NI LAUGARRENERA, ETA ZU?", euskaraz.

KONTZERTUAK

Apirilak 7: Zumarragako musika eskolako ikasleen piano kontzertua Legazpi Dorretxean, ilunabarreko 7:30etan.

Apirilak 29: Pablo Soroazabal haizezko boskotearen kontzertua Zumarragako Mertzadarien baselizan, ilunabarreko 8etan.

DANTZA JAIALDIA

Apirilak 1: IRRINTZI dantza taldearen emanaldia gabeko 10:30etan Zumarragako Beloki pilotalekuan.

LEHIAKETAK

Apirilak 29: Zumarragako Udalak

antolatutako Santa Isabel jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketan, lanak aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago udaleko Kultura Sailean.

IKASTAROAK

JANARI ERABILTZAILE txartela lortzeko ikastaroa: bi maila izango ditu eta garai bateko INEMen bulegoetan, Zumarragako Nafarroa plaza 6an, emango da.

Taldeak egiteko, aldez aurretik hots egin 284900 telefono zenbakira.

KANTU IKASTAROA: apirilak 28an ZINTZO-MINTZOKo Gazte Taldeak antolatutako kantu ikastaroari hasera emango zaio. Maiatzaren 5, 12 eta 19an ere jarraituko du. Azken egunean, ikasitakoa praktikan jartzeko afaria antolatuko da.

OLINPIADAK

Apirilak 13, 14 eta 15: ZINTZO-MINTZOKo Gazte Taldeak antolatutako olinpiadak. Futbolina, musa, herri kirolak eta futbito txapelketak.

ZORIONAK



Irene Iurrebaso, 13 urte beteko ditu apirilaren 1ean. Labeaga ikastetxeko OHoko zazpigarren mailan ari da.



Estitxu Ruiz, 11 urte beteko ditu apirilaren 4an. San Jose ikastetxeko OHoko bosgarren mailakoa.



Ruben Calvo, 8 urte beteko ditu apirilaren 9an. Zelai Aristi ikastetxeko OHoko bigarren mailan ari da.



Mikel Aramendia, 13 urte beteko ditu apirilaren 17an. Gainzuri ikastetxeko OHoko zazpigarren mailakoa.



Sandra Parra, 10 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Legazpi Eskolako ikastetxeko OHoko laugarren mailakoa.



Eneko Vivas, 4 urte beteko ditu apirilaren 27an. Lourdeseko Ama ikastolako OHoko eskolaurrean ari da.



ALTAMIRA LANTEGIAK ZERBITZU OFIZIALA

Gure erakusketan zain gauzazue!

Iparragirre, z/g (Azkoitirako bidea)

☎ 72 33 71

20700 URRETXU



Osasuna munduko ondasuna!

JOZOTERRADIA, ERALAZIO ETA KIROMASAJA ZENTRUA

KARMA-YOGA

Labeaga 56 etxeazpia ☎ 72 59 81 - 20700 URRETXU



Iparragirre, z/g (Azkoitirako bidea)

20700 URRETXU

☎ 72 04 18

Etzekoa: 72 28 19

Otomotz aldizkaria etxean dohainik jaso nahi nuke edo ondoren datorrenari oparitu nahi nioke:

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Moztu eta bidali datuak Labeaga 12, etxeazpira (Aterpe zena) Urretxu edo deitu arratsaldetan 72 57 75era